


2017-2018 Ikasturtea

TXORIBOX

Zure inguruko hegaztiak ezagutu nahi?



aranzadi
zientzia elkarte



Zure inguruko hegaztiak ezagutu nahi?


TXORIBOX proiektua aurkezten dizuegu

TXORIBOX ingurumen-heziketa proiektu bat da, Aranzadi Zientzia Elkarteak bultzatutakoa. Proiektuaren helburuak betetzera iristeko inguruko parke eta lorategietan aurkitzen diren hegaztiez baliatzen da. Horretarako, habi-kutxen eta jantokien eraikuntza, kokapena eta jarraipena ematen da. Bestetik, gure inguruko hegaztiak eta haien eraztuntze zientifikoa gertutik ezagutzeko aukera proposatzen da.

Nortzuk gara?

Aranzadi Zientzia Elkarteak irabazi asmorik gabeko elkarte zientifiko bat da eta natur zein giza ingurunearen ikerketa zientifikoa eta lortutako emaitzen dibulgazioa ditu helburu. 1947an sortu zen, eta izena Telesforo de Aranzadi ikertzaile handiaren omenez datorkio (1860-1945).






TXORIBOX proiektuaren aurkezpena

Azken urteotan inguratzen gaituen natura ezagutu eta hura kontserbatzeko nahia nabariagoa da gure gizartean. Gure ondare naturala babestu eta zaintzeko interesa eta ardura handitzeaz gain, natura eta aisia uztartzeko bideak gero eta gehiago dira. Eremu honetan, hegaztiak heziketa eramaile bikainak dira. Batetik, biologia, geografia, hizkuntzak edo matematika bezalako arloak lantzeko aukera ematen dute. Bestetik, naturaren aisian eta gozamenean oinarrituta, hainbat jarrera positibo indartzeko baliagarri dira; hala nola, talde lana, iraunkortasuna, jasankortasuna, natura edo pertsonekiko errespetua edota enpatia.

Aurretik azaldutakoa kontuan hartuz, Aranzadi Zientzia Elkarteko Ornitologia Sailak hegaztien ezagutzarekin lotura duen ingurumen heziketa proiektu bat jarri du abian. Heziketa proiektu horren helburu nagusia gizartea, eta bereziki ikasleak, naturaren eta faunaren ezagutza, kontserbazioa eta ikerkuntzaren garrantziaz jabetzea da.






Helburuak

Hauek dira proiektuarekin lortu nahi diren helburuak:

- ✓ Naturaren kontserbazioaren garrantziaz sentsibilizatu eta kontzientziatzea.
- ✓ Izaki bizidunak eta ingurugiroaren babesaren aldeko jarrera positibo eta arduratsua garatzea.
- ✓ Gure ondare naturala ezagutzeko interesa piztea.
- ✓ Materialen berrerabilpena eta birziklapena sustatzea.
- ✓ Euskara/ingeleraren erabilera bultzatzea ikastetxeetan.
- ✓ Ikastetxeei ikasgelan lantzeko zailtasunak sortu ditzaketen alderdiak lantzen laguntzen duen proiektu baten parte hartzea sustatzea.





Tailerrak

Habi kutxak
eraiki eta
kokatzeko
tailerra

Hegaztientzako
jantokiak
eraikitze
ko tailerra

Hegaztien
bitxikeriak
ezagutzeko
tailerra


TXORIBOX

Hegaztien
eraztuntze
zientifiko saioa

Irteerak

Ibilbide
ornitologikoa





Zer egiten dugu?

Tailerrak ikasgelan

Hauek dira ikastetxeko ikasgelan egiteko eskeintzen ditugun tailerrak aurretik aipatutako helburuak lortzeko:

1. Habi kutxak eraiki eta kokatzeko tailerra.

- ✓ Helburua: Habi kutxak eraiki eta kokatzea.
- ✓ Materiala: Berrerabilitako materiala, tetabrikak adibidez, edo sendoa eta erresistentzia handikoa den egurra.


2. Hegaztientzako jantokiak eraikitzeko tailerra.

- ✓ Helburua: Hegaztientzako jantokiak eraikitzea.
- ✓ Materiala: Berrerabilitako materiala: latak, plastikozko botilak...

3. Hegaztien bitxikeriak ezagutzeko tailerra.

- ✓ Helburua: hegaztien ezaugarriak eta bitxikeriak ezagutu.
- ✓ Materiala: joku didaktikoak eta identifikaziokoak.






Ikasgelako tailerren ezaugarriak:

- ▣ Iraupena: 2-4 h
- ▣ Lekua: eskaera egin duen ikastetxean.
- ▣ Lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleei zuzenduta
- ▣ Tailerrak Aranzadi Zientzia Elkarteko adituek zuzenduko dituzte.
- ▣ Hizkuntza: euskara, gaztelania edo ingelera.





Tailerrak xehetasunez.


Habi kutxak eraiki eta kokatzeko tailerra

Urte luzez baso eta parkeetan eman den ustiapenagatik ingurua zuhaitz gazteez osatuta dago gehienbat. Zuhaitz horiek ez dute zulo naturalik non hegaztiak babestu eta ugaltu egiten diren. Habi kutxak zulo naturalen ordezkioak dira. Habi kutxak zuhaitzetan ipintzen diren estruktura artifizialak dira hegaztiei haien babeseta eta ugalketa errazteko asmoz.

Tailer honetan habi kutxen garrantzia eta erabilpenaren nondik norakoak azalduko dira; baita horiek okupatzen dituzten ohiko hegaztiak zeintzuk diren ere. Azalpen teorikoaren ondoren ume bakoitzak tetrabrik bat erabiliz bere habi kutxa sortuko du. Berrerabilpenaren eta birziklapenaren garrantziaren inguruan hitz egiteko aprobetxatuko da momentu hori. Habi kutxa bakoitza umeek nahi duten moduan margotu eta apaindu ahaliko dute, ondoren, bakoitzak bere etxeko lorategi edo inguruko zuhaitzen batean jartzeko etxera eraman dezan.

Gainera, pinu sendoz aurrefabrikatutako habi kutxak eraikitzeke aukera egongo da. Material hauek eraikuntza azkarra izan dadin prestatuta daude. Hegaztien epe luzeko jarraipena egiteko erabilgarriak dira. Egurrez egindako habi kutxa sendo eta iraunkor horiek eskola inguruan kokatuko dira, jarraipena egin ahal izateko.





Tailerrak xehetasunez.


Hegaztientzako jantokiak eraikitzeko tailerra

Gaur egungo garapenerako hirigintzako ereduak direla eta, hegaztientzako gero eta zailagoa da elikagaiak giza ingurunean topatzea. Horri aurre egiteko bide bat hegaztien jantokiak eraiki eta kokatzea da, batez ere negu garaietan oso ondo funtzionatzen dutenak. Jantoki horiek elikagaiak lortzeko baliabideak handitzen dituzte eta ondorioz, hegaztien bizi iraupena hobetzen dute batez ere oso kritikoa den negu garaian.

Mota ezberdinetako jantokiak daude eta hainbat elikagaiekin erabili daitezke lagundu eta erakarri nahi den espeziearen arabera, hala nola, hazi, fruitu lehor edo zizareekin erabiltzen dira. Gainera jantoki horiek sortzeko, birziklatutako edo berrerabilitako materiala erabiliz modu erraz batean eraikitze

ko aukera ematen dute. Tailer honetan hegaztien jantokien garrantzia eta erabilgarritasunaren berri emango da. Azalpen horri, jantokietan ikustea ohikoa diren hegazti espezien esplikazioa ere gehituko zaio. Berrerabilitako materiala erabiliz jantokiak eraikiko dira, bide batez, natura zaintzeko berrerabilpenaren eta birziklapenaren garrantziaz hitz egingo da. Jantokiak erraztasunez ipini ahal izateko prestatuko dira lorategi edo eskola inguruan inguruan ipini ahal izateko.






Tailerrak xehetasunez.

Hegaztien bitxikeriak ezagutzeko tailerra

Hegaztiak gizakiontzat eskuragarria den fauna basatiaren parte dira. Inguruko zonalde natural zein urbanoetan hainbat espezie aurkitu ditzakegu. Hegaztien ezaugarri bereziak eta hauek ingurune naturalean behatzen ikasteak pertsonak naturara gehiago hurbiltzea dakar. Gainera, horrek herritarrak inguratzen gaituen natura ezagutu, kontserbatu eta ikertzearen garrantziaz ohartzeko baliagarria da.

Tailer honetan, hegaztien ezaugarri ezberdinak azalduko dira: ezaugarri fisikoak, jokaera, ekologia, bitxikeriak etab. eta naturaren kontserbaziorako hegaztien behaketak duen garrantzia eta erabilgarritasuna azalduko da. Inguruko hegaztiak nola behatu eta bereizi erakutsiko da gure inguruan ikusi daitezkeen hegazti espeziek ikasiz gainera.





Zer egiten dugu?

Irteerak


1. Ibilbide ornitologikoa

- ✓ Helburua: hegaztiak naturan behatzeko ibilaldiak.
- ✓ Baliabideak: gertuko parke batera irteera inguruko hegaztiak behatzeko.

2. Hegaztien eraztuntze zientifiko saioa

- ✓ Helburua: Hegaztien eraztuntzea erakutsi eta azaltzea.
- ✓ Baliabideak: Eraztuntze saio batean parte hartzeko inguruko parkeren batera irteera






Irteeren ezaugarriak:

- ▣ Iraupena: 2-4 h
- ▣ Lekua: zehazteko.
- ▣ Lehen eta bigarren hezkuntzako ikasleei zuzenduta
- ▣ Irteerak Aranzadi Zientzia Elkarteko adituek zuzenduko dituzte.
- ▣ Hizkuntza: euskara, gaztelania edo ingelera.





Irteerak xehetasunez.


Ibilbide ornitologikoa

Gaur egun pertsonon egunerokotasuna eta bizi estiloa dela eta, oso nabaria da naturarekiko jakintza urria herritar askorengan. Natura zaindu eta kontserbatzeko oso garrantzitsua da biztanleriak inguratzen gaituen naturarekiko jakintza izatea. Horregatik, ingurumen heziketari garrantzi handia ematen ari zaio azken urteotan, batez ere, ume eta gazteengan. Horren helburu nagusia biztanleriak ingurumena ezagutu eta harekiko interesa piztea da.

Hegaztiak gizakiontzat eskuragarria den fauna basatiaren parte dira. Inguruko zonalde natural zein urbanoetan hainbat espezie aurkitu ditzakegu. Hauek, ingurumen heziketa lantzeko eta jarduerak egiteko leku aproposak dira.

Ibilbide ornitologiko hau gertuko parke batean egingo da. Hegaztien ezaugarri ezberdinak azalduko dira: ezaugarri fisikoak, jokaera, ekologia, bitxikeriak etab. eta naturaren kontserbaziorako hegaztien behaketak duen garrantzia eta erabilgarritasuna azalduko da. Inguruko hegaztiak behatuko eta erakutsiko ditugu eta baita ikusten ditugun beste animali eta landareak.





Irteerak xehetasunez.


Hegaztien eraztuntze zientifiko saioa

Eraztuntze zientifikoa hegaztien biologia eta jokabideak ikertzeko erabiltzen den markaketa teknika bat da. Hegaztiaren hanka batean metalezko eraztun bat jartzean datza. Eraztunak kode alfanumeriko bat dauka, NAN moduan erabiltzen dena eta hegazti bakoitza modu bakar batean identifikatzeko balio duena.

Eraztuntzetik lortutako informazioak hegaztien kontserbazioa zaintzeko nahitaezkoak diren alderdiak ikertu eta ezagutzeko balio digu. Herritarrak hegazti eta ikerketa mota hontara gerturatuz ikerketa zientifikoaren garrantziaz sentsibilizatu daitezen laguntzen du.

Jardunaldi honetan gertuko parke batera irteera egingo da. Eraztuntze zientifiko saio bat zuzenean bizitzeko aukera izango da eta gure inguruan bizi diren hegaztiak gertutik ikusi eta ezagutu ahalko dira.





SOCIEDAD DE CIENCIAS
SCIENCE SOCIETY
SOCIÉTÉ DE SCIENCES



aranzadi
zientzia elkartea

Tarifak 2017-2018 ikasturtea

**Tailerrak
ikastetxean¹**

120 €/ordua

Irteerak

9 €/ ikasleko

¹Habi kutxen tailerreko prezioan egurrez egindako habi kutxa sendo eta iraukorra barne. Habi kutxak ikastetxe inguruan kokatuko da bere jarraipenerako.

OHARRA: Tailerretan erabiliko den berrerabilitako materiala parte hartuko duten umeek edo eskola eman beharko dute.

Gure jardueren prezioak istripu eta erantzukizun zibileko aseguruia barne daukate.

Harremanetarako

Maite Laso

txoribox@aranzadi.eus

Ornitologia Saila

Aranzadi Zientzia Elkartea

Zorroagaina 11, 20014 Donostia

Tel: +34 943 466142

www.aranzadi.eus

